



BATASUNAREN LEGEZ KANPORATZEA

ELKARRIZKETA

Jaurlaritzak ez du debekatu manifestazioa, baina «legea bete» egingo duela esan du

Garzonen autoa helarazi die gaurko deialdiko sustatzaileei; hauek, berriz, debeku eskaerei aurre egin diete, eta deialdiari eutsi diote

Legebiltzarrak ez dio helegiterik jarriko Alderdien Legeari, hirukoaren ekimena ez baita aurrera atera bozketan /6-9

CARLOS GARAIKOETXEA

Eusko Jaurlaritzako lehendakari ohia



«Lizarra-Garazi akordioaren oinarrietara itzuli behar da» /12

IKASTOLAK

Egitura juridiko eta lehendakari berria

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa osatu dute

Euskal Herriko Ikastolen Elkartea Konfederazioa izango da aurrerantzean, egitura juridikoan aldaketak egin eta gero. Seaska egituraren barruan sartu da juridikoki, erakundea elkarte europar bilakatu ostean. Lehendakari berria ere izango du Konfederazioak Antonio Camposek Pedro Aranbururi utzi baitio lekukoa, kargu horretan mende laurdena egin eta gero. Biek elkarriketatuta da EGUNKARIA. /14-15



ALDAKETA LEHENDAKARITZAN: Antonio Camposek (ezkerrean) Ikastolen Elkarteko lehendakaritza utzi du, karguan 25 urte eman eta gero. Pedro Aranburu (eskuinean) izango da aurrerantzean Konfederazioko lemaizaina.

DONOSTIAKO 50. ZINEMALDIA

Jessica Lange, Dennis Hoper eta Bob Hoskins sarituko dituzte

Donostia Saria jasoko dute zinemaren munduan izandako ibilbide profesional oparo eta bikainagatik /42-44

LIBANO. SABRA ETA SHATILAKO SARRASKIAREN 20. URTEURRENA



Eskubide zibilik gabeko errefuxiatuak

Palestinarrak Libanon.

EGUNKARIAK Nahr El Bared gunea bisitatu du, palestinarrek Libanon pairatzen duten egoera txarraren lekukotasuna jasotzeko /24-25

Juanma Sarasola | BEIRUT | Berriemalle berezia

ITSAS MENDI
karabanak

Kontzesionario Ofiziala

Autokarabanak: HYMER, KNAUS, PILOTE, RIMOR, BENIMAR.
Autokarabanak alokairuan
Karabanak: KNAUS, ERIBA, ROLLER.

Salmenta ondoko zerbitzu bermatua
(Larunbatetan goizez zabalik)
☎ (943) 59 32 90
ANDOAIN (Gipuzkoa)